



## EUSKADIKO ORKESTRAK DENBORALDI HONETARAKO BERE “MUSIKA GELA”REN JARDUERAK AURKEZTEN DITU 30 jardueratik gora izango dira datozen hilabeteotan

Euskadiko Orkestrak Musika Gela izenpean biltzen ditu bertako Hezkuntza Departamentuak diseinatutako jarduera guztiak: Musika Familiar, Gasteizen eta Donostian denboraldi orotan kontzertuak eskainiz, eta Eskola-haurrentzako Jarduerak, hezkuntzaren arlora bideratutako ekimenak aurrera eramanez, horien artean Eskola-haurrentzako Kontzertuak, Bisitak Orkestraren Egoitzara, Tailerrak Ikastetxeetan eta Entsegu Irekiak. Gainera Sinfokids-en bigarren denboraldian ari gara lanean.

Denboraldi honetan guztira 30etik gora dira Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin elkar hartuta izango diren musika-ekitaldiak. Aipagarria da joan zen denboraldian gure jarduerak 7.500 haur baino gehiago bildu zituztela. Eta bere hogeita hamar urtetako ibilbidean Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren jarduera pedagogikoak 146.000 pertsona baino gehiago bildu ditu.

**Musika Familiar.** Giza-balioak eta alaitasuna zabaltzea izango dira Musika Familiar zikloaren denboraldi berrirako finkatutako helburuak. Denboraldia Donostian joan zen abenduan, “Biola ez dago bakarrik” kontzertuarekin hasi zen eta larunbat honetan, hilak 4, jarraituko du “Soldadu baten istorioa” kontzertuarekin; Gasteizen, berriz, otsailaren 5ean abiatuko da Principal Antzokian, “Soldadu baten istorioa” ikuskizunarekin. Per Poc konpainiako Santi Arnalek sortu eta zuzendutako txotxongilo eta itzalek eta EOS instrumentu-talde batek Stravinskyren “Soldadu baten istorioa”ren moldaketa aurkeztuko digute. Martxoan Stick Dance Quartet perkusio-taldeak ia objektu oro musika instrumentu bihurtu daitezke erakutsiko digu, “Ezustekeen Kutxa” emanaldiaren bidez. Adin guztientzat aproposa bada ere, Gasteizen haurtxoentzat bereziki diseinatutako bertsioa izango da. Maiatzan Euskadiko Orkestrak, oso osorik, bere soinu oparotasuna agertuko du “Sheherazade... eta beste ahots batzuk” kontzertuan (Donostian soilik). Jada ekainan “40 urteko algara” ikuskizuna helduko da; Txirri, Mirri eta Txiribitonen umore eta alaitasunarekin, guztiok elkarrekin hauen 40. urteurrena ospatuko dugu, 40 urte baidaramatzate eszenatokietan milaka irribarre zabaldu eta festa eta dibertsio-une ederrak eraginez. Gasteizko “Kutxa misterioitsua” kontzertuak ezik, kontzertu guztiek Sentsibilizazio Tailerra izango dute aurretik. Ikuskizunen aurreko jarduera hau entzute aktiboa indartzera bideraturik dago. Kontzertu-ziklo hau Gasteizko Udalarekin eta Kursaal Fundazioarekin koprodukzioan burutuko da aurtengoan ere.

**Kontzertu hauetarako sarrerak salgai daude jada, garestienek 6,50€-tako prezioa dutelarik. Donostiako kontzertuetarako sarrerak** Kursaalera Leihatilan, Telekutxa bidez (943.00.12.00) eta [www.kutxasarrerak.net](http://www.kutxasarrerak.net) webgunean eros daitezke. **Gasteizko kontzertuetarako sarrerak**, berriz, Principal Antzokiko Leihatilan, telefonoz (945.16.10.45) edo [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) eta <http://entradas.cajavital.es> webguneetan eros daitezke.





**Eskola-haurrentzako Kontzertuak.** Maiatzaren 8, 9 eta 10ean Euskadiko Orkestraren egoitzak denbora gutxian gure hezkuntza-komunitatean finkatu den **ziklo honen hirugarren aldia hartuko du**. Jada hogeita hamar bat ikastetxetako 2.000 haur baino gehiagok izena eman izana horren erakusle argia da. “Sheherazade... eta beste ahots batzuk” kontzertuan izatea aurrez Orkestraren hezkuntza departamentuak prestatutako material pedagogiko berariazkoen bidez ikasgelan garatuko den jardueraren gailurra izango da. Oraindik bada plaza librerik eta izen ematea ziklo honetan Orkestraren lankide den Donostiako Udaleko Hezkuntza Atalaren bidez egin behar da.

**Bisitak Orkestraren egoitzara.** Ikastetxeei zuzendutako ekimen honek Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren jarduera kontzertuaz at geratzen den ikuspuntu batetik ikasleei helaraztea du helburu. Gidatutako bisita bat izango da, orkestra sinfoniko baten jarduera nolakoa den eta nola antolatzen den ezagutu eta, EOSen entsegu bat ikusiz, kontzertu bat nola prestatzen den zuzenean bizitzeko aukera eskaintzen du. Martxorako Donostiako Santo Tomás Lizeoko, EHUko eta Goierriko Helduentzako Hezkuntza Eskolako ikasleen bisita dugu aurreikusita.

**Tailerrak Ikastetxeetan.** Musika Familiar zikloko kontzertuen aurreko Sentsibilizazio Tailerrez gain, Orkestraren hezkuntza departamentuak kontzertu hauetara joango diren ikastetxeei tailerra ikastetxean bertan egiteko aukera ematen die. Aste honetan bertan Donostiako Nuestra Señora de Aranzazu (Jesusen Alabak) ikastetxeko 60 ikaslek “Soldadu baten istorioa” kontzertua prestatu dute heuren ikasgelan bertan.

**FEVAS-ekin lankidetzak.** Korporazio Erantzukizun Sozialaren baitan, Euskadiko Orkestraren Musika Gelak 2009. urtetik lankide du Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa (FEVAS). Denboraldi honetan lankidetzak hau maiatzan izango diren tailer batean eta ondorengo “Sheherazade... eta beste ahots batzuk” kontzertuan gauzatuko da.

**Entsegu Irekiak.** Joan zen denboraldian Kursaal Auditorioan bildutako 1.130 ikaslek Orkestraren eta Malandain Ballet Biarritz-en entsegu bat zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Denboraldi berri honen baitan, EHUko ehun bat ikasle Andrés Orozco-Estradak zuzendutako Abonu-Denboraldiko 5. programaren entsegu batean izan ziren azaroan eta ekainan Kursaal Auditorioak ehundaka ikasle hartuko ditu, Abonu-Denboraldiko azken programaren entseguan, West Side Story-ko dantza sinfoniak barne.

**Sinfokids 2.** Sinfokids sailaren lehenbiziko denboraldia ETBn emititu ostean, Euskadiko Orkestrak, EITBK eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatutako ikus-entzunezko saio hau DVD formatuan Euskadiko lehen hezkuntzako ikastetxe, musika eskola eta kontserbatorio guztietan banatu zen, jada tresna pedagogiko gisa erabilgarri. Orain Sinfokids saioaren bigarren denboraldia postproduzio prozesuan dago jada. Zornotzako Zubiaur Musika Eskolako ikasleekin grabatutako honetan Sinfo eta bere lagunek ikus-entzulegoa hots-mundura modu dibertigarri zein zuzenean hurbiltzen jarraituko dute.

**Izaera pedagogikoa duten ekimen hauek guztiak [www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es) gure webgunean aurkitu ahalko dituzue, Musika Gela atalean.**





## Soldadu baten istorioa



### Donostia-San Sebastián

Larunbata, otsailaren 4a, Kursaaileko Ganbera Aretoa. 18.00etan  
Sentsibilizazio Tailerra: 16.45etan. Kursaaileko Foyer-ean  
Kursaal Fundazioarekin koprodukzioan

### Vitoria-Gasteiz

Igandea, otsailaren 5a, Principal Antzokia. 18.00etan  
Sentsibilizazio Tailerra: 16.45etan. Principal Antzokiko Ambigú-an  
Gasteizko Udalarekin koprodukzioan

**“Soldadu baten istorioa”** ikuskizunarekin Euskadiko Orkestrak eta Per Poc konpainiak bat egingo dute berriz ere. Aurretik elkarrekin arituak dira jada: Orkestraren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekimenen artean, 2007ko martxoan **“Romeo eta Julieta”** txotxongilo erraldoien ikuskizuna eszenaratu zuten Donostiako Kursaailean, Iruñeako Baluartean, Bilboko Arriaga Antzokian eta Gasteizko Principal Antzokian.

**“Soldadu baten istorioa”** 1918an Igor Stravinskyk biolin, kontrabaxu, fagot, korneta, tronboi, klarinete eta perkusiorako eta antzezle taldearentzat konposatutako obra da. Zirkuko edo feriako giroa gogorarazten digun musika eta Charles Ferdinand Ramuz-en testu bat: soldadu bat beti azpikokoan dabilen deabruarekin harremanetan jarri eta honek arima erauziko dio azkenean mutikoari. Hala, bai musikak bai istorioak guztiok azkenean bukatuko dugun bidegurutzera eramango gaituzte: aukeratu behar izatea eta huts egiteko arriskua. Per Poc txotxongilo talde katalana eta gure Orkestrako musikariek aurkeztuko digute gerrarteko aldirian baliabide urriekin sortua izan arren musika zoragarria darion obra berezi hau.

### Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Ganbera Taldea eta Per Poc Txotxongilo Taldea

#### FITXA ARTISTIKOA

**MUSIKA:** zuzendaria: Anthony Lafargue; **interpreteak:** Didier Bousquet, tronpeta; Raquel Cortinas, biolina; Stéphane Langlois, klarinetea; François Proud, fagota; Arkadius Maciejski, kontrabaxua; Christophe Sánchez, tronboia; Jorge Pacheco, perkusioa. **ANTZERKIA:** testua: Charles Ramuz, gaztelaniazko bertsoia: Carmen Doménech; **txotxongiloen maneilua eta antzezleak:** Aitana Bernabé eta Anna Fernández.

**PER POC.** Santi Arnal-ek 1989an sortu zuen Per Poc txotxongilo konpainia, Harry V. Tozer maisuaren ikasle izan ostean. Txotxongiloaren unibertsoa ezagutzera ematearekiko interes honek lankidetzat ugarri ahalbidetu ditu arte plastiko, zinema, musika edo ikus-entzunezko munduarekin.

**Musikarekiko hurbilketan, Per Poc konpainiak obra garrantzitsuak ekoitzi ditu:** Britten-en *Kedar-garbitzaile txikia*; Mendelssohnen *Udako gau bateko ametsa*; Tchaikovskyren *Intxaur-hauskailua* eta Prokofieven *Peru eta Otsa*, esaterako. Bere ikuskizunak ospe handiko aretoetan programatu dira, horien artean Vienako Konzerthaus, Moskuko Musika Antzoki Nazionala, Kataluniako Palau de la Música, Castell de Peralada Jaialdia, Liceu-ko Antzoki Handia, Madrilgo Errege Antzokia edo Bartzelonako Grec Jaialdia,... Euskadiko Orkestrarekin aritzeaz gain, 20 orkestra sinfoniko baino gehiagorekin aritu da lankidetzan; aipagarrienen artean ORF Radio-Symphonieorchester Wien, Wiener Kammerphilharmonie, Taipei Symphony Orchestra, Orquesta Sinfónica del Principado de Asturias, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Real Filharmonia de Galicia, Orquesta Simfónica del Vallès, Orquesta Filarmónica de Bogotá, Orquesta Sinfónica Nacional de Panamá edo Orquesta Sinfónica de Tenerife. Zinemaren alorrean, Per Poc Terry Gilliam zuzendariarekin aritu da lanean *“The Man Who Killed Don Quijote”* filmean. Egindako lanaren zati bat *“Lost in La Mancha”* dokumentalean ikus daiteke.

